

6.BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko, gure lokalean egon ondoren edo gure webgurutetik harremanetan jarri ondoren, emailez galdetegi bat bidaliko diegu, honetan zer nolako ebentua nahi duten, haien aurrekontua, haien zaletasunak, gorroto dituzten gauzak, ze motako publikorako(umeak, nerabeak, helduak,...) izango da ebentua, bidaia edo ospakizuna,... hau da, bezeroak guk ahalik eta hoberen antolatzeko behar dugun guztia adieraziko du.

Bezeroen-arreta zerbitzua ere edukiko dugu bertan, haien zalantzak, kezkak, proposamenak eta sugerentziak kontutan hartzeko. Honen bidez ebentua antolatzeko ia pauso guztietan jakingo dute nola dauden gauzak eta aldaketa bat egin nahi badute aukera izango dute.

Ebentuan bertan ere izango dute gure enpresako pertsonaren bat haien eskura, zerbait behar denean laguntzeko. Honek guri gure zerbitzua iragartzen laguntzen gaitu.

Bidai bat izateko kasuan ahalik eta errezen egitea da oso garrantzitsua, leku batetik bestera mugitu behar bagara gure enpresako txoferra eskura izango dute edo beste mugikortasun enpresetako deskontuak izango dituzte eskura.

Gure bezeroen esperientzia bukatu ondoren, email bat bidaliko diegu, gure lanaren feedback bat jasotzeko, etorkizuneko bezeroen esperientzia hobetzeko iradokizun bat egin nahi badute, gustatu ez zaien zerbait egon den edo, besterik gabe, gurekin esperientzia ona izan duten esateko.